

ESKAKIZUN TEKNIKOEN ORRIAK

GARBIGUNEETAKO ETA URTETA ZABORTEGIKO SAILKAPEN EREMUKO EDUKIONTZIAK GARRAIATZEKO ZERBITZUA

1. BALDINTZEN ORRIEN OBJEKTUA

Baldintza-orri hauen helburua da hainbat jarraibide eta oinarri tekniko ezartzea, hondakinak Aia-Orio, Zarautz eta Zumaiako garbiguneetatik eta Urtetako zabortegiko sailkapen eremutik berreskuratu, birziklatu edo desagerrarazteko zentroetara garraiatzeko zerbitzua kontratatzeko.

Zerbitzuak ustiatzeko lanak egingo dira aurkeztu eta onartutako egitasmoari, eskakizun tekniko zehatzen orri hauei eta kontratua esleitzeko kontratu-agirian zehazten denari jarraituz.

2. LURRALDE-EREMUA

Baldintzen orri hauen 1. baldintzan zehaztutako zerbitzuak Urola Kostako Udal Elkartearen lurralde eremu osoan eskainiko dira, hain zuzen ere Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiari.

3. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

Zerbitzua honetan datza: Aia-Orioko, Zarauzko eta Zumaiako garbiguneetan eta Urteta zabortegiko sailkapen eremuan dauden edukiontzia kargatu, Udal Elkarteak zehazten duen zentrori eraman, hondakinak hustu eta edukiontzia berriro lehengo lekura itzuli.

Instalazio bakoitzaren helbideak honako hauek dira:

- ✓ Aia-Orioko garbigunea: Ubegun industrialdea 7B, Aia.
- ✓ Zarauzko garbigunea: Abendaño industrialdea, Zarautz.
- ✓ Zumaiako garbigunea: Jose Mari Korta industrialdea, Zumaiari.
- ✓ Urteta zabortegia (sailkapen eremua): Urteta auzoa, Zarautz.

Zerbitzuaren izaera kontuan hartuta, lanen kopuru osoa ez da aurrez finkatuko, eta, beraz, Urola Kostako Udal Elkarteak kontratuak irauten duen bitartean kontratuaren esleipendunari adierazten dizkion kopuru eta beharren arabera izango da.

Zerbitzua honela eskainiko da:

- ✓ Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek instalazio jakin bateko hondakinak erretiratu egin behar direla jakinarazten dionean, emakidaren jabeak hondakin horiek erretiratu egingo ditu, (astelehenetik larunbatera, biak barne) gehienez ere 24 orduko epearen barruan eskaera egiten denetik hasita. Jasoketa- eskaera larunbatean egiten bada, bilketa zerbitzua asteleheneko lehenengo orduan eskainiko da.
- ✓ Kontratuaren jabeak, ibilgailu egoki baten bidez, edukiontzia kargatu, Udal Elkarteak adierazitako zentrori garraiatu, bertan zama hustu eta edukiontzia lehengo lekura (garbigune edo zabortegiko sailkapen eremua) eramango du.
- ✓ Udal Elkarteak erabaki dezake noizbehinka biltzen den materiala Udal Elkarteko Urteta zabortegian edota Aia-Orioko garbigunean pisatzea.



Hona hemen 2015ean egingo diren garraio-zerbitzu kopuruen (bidai kopurua) aurreikuspena:

Hondakin mota	Aia-Orioko garbigunea	Zarauzko garbigunea	Zumaiako garbigunea	Sailkapen eremua (Urteta)	GUZTIRA
Enbalatzeko plastikoa	0	-	0	4	4
Hondakin ez birziklagarriak	23	66	32	19	140
Obra-hondakinak	17	50	21	-	88
Kartoia	4	28	12	1	45
Pneumatikoak	-	4	-	-	4
Inausketako eta lorezaintza kohondakinak	9	11	10	-	30
Poliespana	4	18	12	13	47
Denetariko plastikoa	8	13	10	10	41
GUZTIRA(Bidai kopurua)	65	190	97	47	399

Hona hemen egun Udal Elkarteko instalazio bakoitzeko hondakinak garraiatzen diren plantei buruzko informazioa:

Hondakin mota	Aia-Orioko garbigunea	Zarauzko garbigunea	Zumaiako garbigunea	Sailkapen eremua (Urteta)
Enbalatzeko plastikoa	-	-	-	Saica Natur (Martutene)
Hondakin ez birziklagarria	VerterRecycling (Zaldibar)	VerterRecycling (Zaldibar)	VerterRecycling (Zaldibar)	VerterRecycling (Zaldibar)
Obra-hondakinak	VerterRecycling (Zaldibar)	VerterRecycling (Zaldibar)	VerterRecycling (Zaldibar)	-
Kartoia	Saica Natur (Martutene)	Saica Natur (Martutene)	Saica Natur (Martutene)	Saica Natur (Martutene)
Pneumatikoak	Desguaces Lezo (Lezo)	Desguaces Lezo (Lezo)	Desguaces Lezo (Lezo)	-
Inausketako eta lorezaintzako hondakinak	Sailkapen eremua - Urteta (Zarautz)	Sailkapen eremua - Urteta (Zarautz)	Sailkapen eremua - Urteta (Zarautz)	-
Poliespana	Sailkapen eremua - Urteta (Zarautz)	Sailkapen eremua - Urteta (Zarautz)	Sailkapen eremua - Urteta (Zarautz)	Aislamientos Arellano (Oiertzun)
Denetariko plastikoa	Saica Natur (Martutene)	Saica Natur (Martutene)	Saica Natur (Martutene)	Saica Natur (Martutene)



Hona hemen Udal Elkarteko instalazio bakoitzetik berreskuratu, birziklatu edo desagerrarazteko zentroetarako joan-etorrien distantzia (km):

Zentroa	Aia-Oriko garbigunea	Zarauzko garbigunea	Zumaiako garbigunea	Sailkapen eremua (Urteta)
Saica Natur (Martutene) Enbalatzeko plastikoa	-	-	-	48,80 km
Verter Recycling (Zaldibar) Hondakin ez birziklagarria	88,20 km	84,00 km	66,20 km	87,80 km
Verter Recycling (Zaldibar) Obra hondakinak	88,20 km	84,00 km	66,20 km	87,80 km
Saica Natur (Martutene) Kartoia	38,00 km	44,60 km	70,40 km	48,80 km
Desguaces Lezo (Lezo) Pneumatikoak	55,00 km	61,60 km	87,20 km	-
Sailkapen eremua - Urteta (Zarautz) - Inausketa eta lorezaintzako hondakina	17,80 km	5,40 km	30,20 km	-
Sailkapen eremua - Urteta (Zarautz) Poliespana	17,80 km	5,40 km	30,20 km	63,80 km (*)
Saica Natur (Martutene) - Denetariko plastikoa	38,00 km	44,60 km	64,40 km	48,80 km
GUZTIRA (km)	343,00 km	329,60 km	414,80 km	385,80 km

(*) Urteta zabortegiko sailkapen eremuan biltzen den poliespana Aislamientos Arellano plantara bideratuko da.

Kontratua indarrean dagoen epearen barruan Udal Elkarteak hondakinak berreskuratu, birziklatu edo desagerrarazteko egoki irizitako beste edozein zentro hautatu ahal izango du, kontratuko unitate prezioak aldatu gabe.

Zerbitzua eskainiko da garbiguneen eta Urtetako zabortegiko sailkapen eremuaren lan ordutegia eta hondakinak jasoko dituzten instalazioen ordutegia kontuan hartuta.

Honako da garbiguneetako ordutegia:

- Astelehenetik ostiralera:8.30etik 13.30era eta 16.30etik 18.30era.
- Larunbatetan:10.00etatik 12.30era.
- Abuztua:Goizez soilik, 8.30etik 13.30era.
- Jaiegunetan:Itxita.

Urteta zabortegiko sailkapen eremuko ordutegia:

- Astelehenetik ostiralera:8.00etatik 14.00etara.
- Larunbatetan:8.00etatik 12.00etara.
- Jaiegunetan:Itxita.

Herri-onurako arrazoiak, premia berriak edo ustekabeko arrazoiak direla eta, Urola Kostako Udal Elkarteak garbiguneen eta zabortegiaren ordutegia alda dezake, eta esleipendunak ez du izango kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik.

Kontratuaren jabeak garbiguneetako eta Urteta zabortegiko sailkapen eremuko arduradunek eta hondakinak jasoko dituzten zentroetako langileek emandako jarraibideak beteko dituzte honako gaiei hauei buruz: hondakinak zamatzeko edo husteko lekuak, egin beharreko maniobrak, instalazio horietako lan arriskuen prebentzio arau eta jarraibideak eta bestelakoak.

Kontratuaren jabeak arretarik handienarekin egingo du bere lana, hondakinak kargatzen, garraiatzen edo husten ari dela materialik ez erortzeko. Kontratuaren jabeak edukiontziei sare edo lona gisako babesgarri bat jarriko die, hondakinak garraiatzen ari dela materialik ez erortzeko edo aireratzeko.

Ibilgailuek garbigunean eta Urteta zabortegian behar-beharrezkoak diren maniobrak egingo dituzte soilik, uneoro ahaleginduko dira beste ibilgailuen joan-etorria ez oztopatzen eta behar diren segurtasun neurriak hartuko dituzte.

4. GARRAIATUTAKO MATERIALEN JABETZA

Garraiatutako material guztiak Urola Kostako Udal Elkartearen jabetzakoak dira.

5. LANGILEAK

Kontratuaren jabeak uneoro eskura izango ditu zerbitzu eskaintzeko behar diren langileak, eskakizun teknikoan orriotan ezarritako jarraibide eta zehaztapenen arabera.

Esleipendunak zerbitzuari uneoro eskaini behar dizkio kontratuaren objektu diren zerbitzuak eraginkortasunez burutzeko eta bestelako gorabeherari aurre egiteko (bajak gaixotasun edo istripuengatik, baimenak, sindikatu-lanak, oporrak, behar bezala justifikatutako bestelako gorabeherak, ustekabeko bajak eta lanuzteak) behar diren giza baliabideak.). Esleipendunak lanuzte edo baja horiek berehala bete behar ditu.

Urola Kostako Udal Elkarteak ez du inolako harreman juridiko edo lan harremanik izango esleipendunaren langileekin, ez kontratua indarrean dagoen epearen barruan, ez kontratua amaitu ondoren. Esleipendunari dagozkio kontratu honen haritik esleipendunaren eta bere langileen artean sortzen diren betebeharrak, kalte-ordain eta erantzukizun guztiak.

Esleipendunak Gizarte Segurantzako, lan istripuen gaineko eta PFEZaren gaineko dagozkion lan bete behar guztiak bete behar ditu.

Enpresan lan gatazka gertatu edo greba egiten bada, enpresa esleipendunak gutxieneko zerbitzuak eskaini beharko ditu, Urola Kostako Udal Elkarteak edo eskumena duten erakundeek ezartzen dutenaren argitara.

6. EDUKIONTZIAK JASO ETA GARRAIATZEKO IBILGAILUA

Esleipendunak zerbitzua behar bezala burutzeko behar diren bitarteko guztiak jarriko ditu.

Zerbitzuei atxikitako bitartekoek bermatu behar dute zerbitzua burutuko dela denbora tarte egokiarekin, lanen plana garaiz egin eta sor litekeen edozein ustekabeko gainditu ahal izateko. Ibilgailuak direnik eta egokienak izango dira, zerbitzuaren ezaugarri eta premiak kontuan hartuta.

Kontratuaren jabeak zerbitzua burutzeko jartzen duen ibilgailuak Udal Elkarteak une bakoitzean dituen edukiontzia kargatu, garraiatu eta husteko egokia den sistema izango du, edukiontzia kargatu eta lotzeko. Zerbitzua eskaintzeko sistema horiei aldaketa edo egokitzapenen bat egin behar baldin bazaie, kontratu jabeak ordainduko du.

Kontratuari atxikitako bitarteko materialak Urola Kostako Udal Elkartearen esku jarriko dira denbora-zati batez, hain zuzen ere zerbitzua eskaintzen ari den denbora tartean.

Kontratuaren jabeak ordezkotako ibilgailu bat beti eskura izan behar du, zerbitzua burutzen duen ibilgailuaren antzeko ezaugarriak dituen, edukiontzia jasotzeko ibilgailuak matxuraren bat edo beste gorabeheraren bat duenerako, ordezkotako ibilgailuarekin egun jakin baterako finkatutako lana egun horretan bertan amaitu ahal izateko.

Lehiatzaileek eskaintzan adierazi behar dute ibilgailuen geltoki finkoa zein den eta bertatik garbiguneetara eta Urtetako zabortegiko sailkapen eremura joateko batez besteko denbora zenbatekoa izango den.

Erabiliko diren ibilgailu, makina eta tresnak zehatz-mehatz deskribatu behar dira (ezaugarri teknikoak, ekipoak, antzintasuna...) eta plano, krokis, eskema, argazki eta bestelako datuak erantsiko dira, bitarteko horien ahalik eta ezagutzarik onena izateko.

7. KONTROL SISTEMAK

Lehiatzaileek eskaintzan proposatzen duten antolamenduan bide azkarrak aurreikusi behar dituzte Urola Kostako Udal Elkarteak eskatzen dituen datu guztiak garaiz aurkezteko, egindako lanak justifikatzeko nahiz kontratatutako zerbitzu publikoa kontrolatzeko komenigarri jotzen dituen kontrolak egiteko. Gailu eta sistema horiek (informatikoak edo bestelakoak) bateragarriak izango dira Udal Elkarteak eskura dituenekin.

Horrez gain, esleipendunak behar diren bitartekoak jarriko ditu (telefono mugikorra, faxa, posta elektronikoa eta abar) arduradunaren eta Urola Kostako Udal Elkarteko zerbitzu teknikoaren arteko komunikazio sistema uneoro azkarra eta eraginkorra izango dela bermatzeko.

Kontratutako zerbitzua Udal Elkartearen (zerbitzu teknikoaren bidez) ikuskatze eta zaintzapean egongo da uneoro, eta egoki eta beharrezko irizten dituen berrikustekak egingo ditu, edozein une eta lekutan.

Udal Elkarteak, ikuskatze lanen ondorioz, jarraibide eta agindu zehatzak eman ahal izango ditu eta esleipendunak bete egin beharko ditu.

Esleipendunak Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek emandako agindu eta jarraibideak hartu eta bete egin behar ditu.

Esleipendunak Udal Elkarteak eskatzen dizkion agiri guztiak erakutsi behar dizkio, batez ere honakoak: gizarte aseguruari buruzkoak, lan arriskuen prebentzioari eta lan istripuei buruzkoak eta aseguru polizei buruzkoak. Halaber, Udal Elkartearen erantzukizun subsidiarioa saihesteko helburua duten eginbide guztiak burutzen utzi behar dio.

Esleipendunak Udal Elkarteak agintzen dizkion zerbitzuarekin zerikusia duten txosten eta azterketa-lanak egin behar ditu.

Urola Kostako Udal Elkarteak aplikazio informatiko bat jarri ahal izango du esleipendunaren esku. Zerbitzua eraginkortasunez kontrolatu eta kudeatzeko, esleipendunak aplikazio informatiko hori derrigorrez erabili beharko du.

Tresna informatiko horrek, alde batetik, aukera emango dio esleipendunari zerbitzua zehatz-mehatz kontrolatzeko eta errazago kudeatzeko, eta, beste alde batetik, Udal Elkarteari aukera emango dio kontratatutako lanak zer-nola egin diren ezagutzeko eta egoki irizitako kontrolak egiteko.

Horretarako, esleipendunak interneterako konexioa duten telefono mugikorrek jarriko ditu lantaldeen eskura datuak sartzeko.

Esleipendunak tresna informatiko hori erabiliko du, Udal Elkarteak ematen dizkion jarraibideen arabera, eta ahalegin eta arreta osoa eskainiko du tresna horri probetxurik handiena ateratzeko.

8. KALTEAK BESTE BATZUEI

Esleipenduna izango da kontratua burutzeko egin beharreko lanen ondorioz beste batzuei eragindako kalte eta galera ororen erantzule. Horretarako, kontratua burutzeak dakartzan arriskuak estaltzeko erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat kontratatu behar du, gutxienez 600.000 euroko estaldurarekin.

9. ZERBITZUARI BURUZKO BESTE ALDERDI BATZUK

Debekatuta dago esleipendunaren langileek hondakinen artean gauzak bilatzea, hautatzea edo bestelako edozein manipulazio-lan egitea.

Esleipendunaren langileek balio handiko objektuak topatzen badituzte, objektu horiek Urola Kostako Udal Elkarteko zerbitzu teknikoen esku utziko dituzte, jabeak direla egiaztatzen dutenei itzultzeko.

Udal Elkarteak erabaki dezake noizbehinka biltzen den materiala Udal Elkarteko Urteta zaborategian edota Aia-Orioko garbigunean pisatzea.

10. USTIAKETA EGITASMOA

Lehiatzaileek beren eskaintza teknikoa eta ekonomikoa zehaztu, arrazoitu eta baloratu egin behar dute. Horretarako Aia-Orio, Zarautz eta Zumaiako garbiguneetatik eta Urtetako zabortegiko sailkapen eremutik berreskuratu, birziklatu edo desagerrarazteko zentroetara garraiatzeko zerbitzua kudeatzeko Ustiaketa Egitasmoa idatzi behar dute.

Egitasmoa aztertu ondotik, Urola Kostako Udal Elkarteko kontratazio organoak onartzeko erabakia hartuko du. Egitasmo horren onarpena berariaz jasoko da esleitzeko erabakian eta horren haritik egiten den kontratuan.

Lehiatzaileek memoria tekniko bat aurkeztu behar dute, ustiatzeko lanak antolatzeko eta egiteko era xehetasun osoz agertzen duena. Memoria tekniko horrek honako alderdiak landu behar ditu, gutxienez:

- ✓ Baldintzen orri hauean zehaztutako derrigorrezko zerbitzu bakoitzaren egitasmoa (antolamendua, bitartekoak eta langileak).
- ✓ Zerbitzuak hobeto deskribatzeko egoki irizitako bestelako datuak.

EGINBIDEA:

Eginbidea, nik, Urola Kostako Udal Elkarteko idazkari-kontuhartzaileak egina, jasota uzteko eskakizun teknikoen orri hauek Udal Elkarteko lehendakariak onartu zituela, 2015eko martxoaren 3ko 15/00018 zenbakiko ebazpenaren bidez.

Zarautz, 2015eko martxoaren 3a